

## IRUÑEKO HEO-EAN AZTERKETAK EGITEKO PROTOKOLOA: IKASLEAK

Hezkuntza-komunitateko pertsona guztien ardura da COVID-19a kontrolatzeko eta hedapena murrizteko hartutako babespen-neurriak zorrotz betetzen laguntzea.

### 1. BANAKAKO NEURRIAK

- a. Aurrez aurreko probak egitera joan aurretik, ikasle guztiek beren burua aztertu beharko dute etxean ea sintoma hauetakoren bat duten jakiteko: sukarra (>37°C), eztul lehorra, eztarriko mina, amasteko zailtasuna, usaimen- eta dastamen-galera. Halakoren bat baduzu, **ez etorri proba egitera**. Azterketa-egunean konfinatuta egonez gero, ikasleek, bai ofizialek, bai libreek, horren berri eman beharko diote ikastetxeari eskolako [harremanetarako formularioaren](#) bidez; [3/2021 ebazpen](#)ean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta beste egun bat emango zaio idatzizko azterketa egin ahal izateko.
- b. Ikasle guztiak maskara higienikoa, ez oihalezkoa, ez gardena, jantzita joango dira probara.
- c. Ikasleek higiene pertsonalerako neurriak areagotu beharko dituzte:
  - Eskuak ur eta xaboiz edo soluzio hidroalkoholikoz garbitu beharko dira.
  - Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta dagoela.
  - Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.
  - Ile luzea izanez gero, behar bezala bilduta eraman beharko da (mototsa, moñoa eta abar).
  - Azazkalak moztuta eraman. Eraztun, eskumuturreko edo erlojurik ez eraman.
  - Erabili behin erabiltzeko zapiak. Erabili ondoren, edukiontzi edo paperontzi espezifikoetan bota behar dira.
  - Ez egin heziketa edo afektuzko adierazpenik, kontaktu fisikoa eskatzen badute.
- d. Ikasle batek koronabirusa duela argudiatzen badu, jakinarazi beharko du. Ez da inolaz ere aurrez aurreko azterketara aurkeztuko.
- e. Ikasle bat bereziki sentikorrak diren talderen batekoa bada, [dagokion departamentuko buruari jakinarazi](#) beharko dio, alternatibak bilatzeko.

## 2. ANTOLAKETA-NEURRIAK

Azterketak ikasgeletan eta ekitaldi-aretoan egingo dira. Ikastetxearen gehieneko edukiera hau izanen da: 13 ikasle ikasgela bakoitzeko, 26an eta 27an (7na ikasle), areto nagusian (27 ikasle) eta erabilera-anitzeko aretoan (10 ikasle) izan ezik. Guztira: 324 ikasle, bi metroko tartea utzita norabide guztietan, Osasun Ministerioak gomendatzen duen bezala.

Azterketa egiteko lekua ongi aireztatuko da eta aurrez desinfektatuko da.

**Komunak.** Mutilen komuneko gehieneko edukiera bi pertsona da aldi berean. Nesken komunean, hiru. Okupatuta badaude, kanpoan itxaron beharko da, iritsitako hurrenkeran, segurtasun-distantziari eutsita (>2m). Korridorean, bi pertsonak itxarongo dute gehienez. Edonola ere, eremu komunetan beste pertsona batzuekin ez gurutzatzen saiatuko da.

Komun-guneetako ateak irekita egongo dira.

**Eremu komunak.** Ahalik eta gutxiena erabiliko dira eremu komunak edo igarotzeko eremuak, hau da, espazio batzuetatik beste batzuetara joateko baino ez, eta ezin izango da solas egin, jan, kafea hartu eta abar haietan.

## 3. PROBAK EGITEKO NEURRIAK

### A. Idatzizko azterketak

Probara modu mailakatuan joateko eskatuko zaie ikasleei.

- a. Oro har, deialdia webgunean argitaratuko da (Hizkuntzak menua - dagokion hizkuntza ofiziala, Azterketak atala), eta bertan adieraziko da zein orduan aurkeztu behar den ikastetxean, hizkuntzaren arabera eta, behar izanez gero, ikasle ofizial edo libreen arabera, eta abizenen hasierako inizialak ere. Salbuespenez, egoera bereziak dituzten eta haiek jakinarazi dituzten ikasleei SMS bidez jakinaraziko zaie zer orduan aurkeztu behar diren.
- b. Deitutako ikasleek Compañía plazan itxaron beharko dute, harik eta ahoz deitu arte; hurrenkera alfabetikoan deituko zaie, eta segurtasun-distantziari eutsi beharko diote bitartean.
- c. Izena entzundakoan, eskolara sartu eta eskailerak igoko ditu azterketa egin behar duen solairuraino; ilaran igo beharko ditu, hormaren aldetik eta eskudela ukitu gabe.
- d. Lehen solairuan, irakasle batek non eseri behar zaren esango du.
- e. Alfabetoaren hurrenkeran jarriko dira ikasleak, irakasleek adierazitako hurrenkeran.
- f. Mahaian, azterketa-eredua egongo da; idazten hasi baino lehen, irakasleen jarraibideei entzun beharko zaizkie.
- g. Idatzizko azterketak atal hauek ditu:

- Entzumena
  - Irakurmena
  - Idatzizko ekoizpena eta ko-ekoizpena
  - Idatzizko bitartekotza
- h.** Etenaldi txiki bat egingo da idatzizko ekoizpen eta ko-ekoizpeneko proba eta idatzizko bitartekotzako proba hasi baino lehen<sup>1</sup>. Ezin izango da tokitik alde egin atsedendian, komunera joateko ez bada.
- i.** Komunera joan ahalko da etenaldian jarraibide hauek betetzen badira:
- Mutilen komuneko gehieneko edukiera bi pertsona da aldi berean. Nesken komunean, hiru. Okupatuta badaude, kanpoan itxaron beharko da, iritsitako hurrenkeran, segurtasun-distantziari eutsita (>2m). Korridorean, bi pertsonak itxarongo dute gehienez. Edonola ere, eremu komunetan beste pertsona batzuekin ez gurutzatzen saiatuko da.
- j.** Azterketa bukatutakoan, ikasleak gutun-azal batean sartuko ditu azterketa zein erabilitako paper zikinak, erabili baditu; gero, irakaslearen mahaian jarritako kutxan sartuko du gutun-azala.
- k.** Eraikinetik aterako da gero, eskaileretatik, banan-banan, ilaran, segurtasun-distantziari eutsiz.
- l.** Compañia kaleko atetik aterako da eskolatik, zoruko seinaleei jarraituz.
- m.** Komuna erabili behar badu, aipatutako arauak bete beharko ditu.
- n.** Ikasleak ezingo dira eskailburuetan edo eraikinaren beheko solairuan geratu. Azterketa amaitzean, eskolatik atera behar dira.

## **B. Ahozko azterketak**

- a.** Ahozko probak atal hauek ditu:
- Ahozko ekoizpena eta ko-ekoizpena
  - Ahozko bitartekotza
- b.** Proba grabatu egingo da.
- c.** Ikasleak azterketa-egutegian adierazitako egunean joan beharko dira azterketa egitera (Hizkuntzak menua - dagokion hizkuntza ofiziala, Azterketak atala).
- d.** Azterketa-ikasgelan sartu baino lehen eta azterketa bukatutakoan, eskuak gel hidroalkoholikoz garbituko ditu.

---

<sup>1</sup> Proba hori egin behar ez duten ikasleak gela edo aretotik aterako dira une horretan, irakasle antolatzaileen jarraibideei jarraituz.

- e. Ikasgelan, bi metroko distantzia mantenduko da epaimahaiaren eta ikaslearen artean, eta manpara bat egongo da haien artean.
- f. Ahozko proba bikoteka eginez gero, hautagaiak paraleloan eseriko dira, **aurrez aurre egon gabe**, bi metroko segurtasun-tarteari eutsiz.
- g. Azterketaren euskarrien kopia bat emango zaio, eta, amaitzean, urratu eta zakarrontzira botako ditu.
- h. Eskolara sartzeko, azterketa egiteko ikasgelara sartzeko eta komunak erabiltzeko, 3.A atalean ezarritakoa bete beharko da.
- i. Proba amaitzean, ukitutako gainazalak (mahaia eta aulkia) desinfektatuko ditu.